

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Katerin Artola  
Igotz Errazkin  
Eñaut Amundarain  
Alain Etxeberria

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen dituzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak diren baliabideak.

Gure enpresan ezinbestekoak izango ditugu funtsezko baliabideak, hain zuzen ere, salduko ditugun produktuak. Gure enpresaren kasuan funtsezko baliabide horiek kanpoko enpresa batek garatuko ditu kostuak murrizteko eta gure enpresaren esfortzuak balio erantsi handiagoa eskaintzeko. Horrekin batera, merkatua hobeto segmentatzeak eta gure baliabideak hobeto kudeatzeko kostuak murrizteko aukera ematen digute eta horrela, baliabide hauek gure enpresa kostuetan duten eragina minimizatzea lortuko dugu. Baita ere, jarduerari eutsi ahal izateko, gure produktuak bezeroek erosten dituzten heinean eta agortzen diren heinean, produktu berri antzekoekin ordezkatzeko ditugu.

Baliabideak, ondoko kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, noski, lokal bat beharko dugu gure bezeroak bertara etorri ahal izateko gure produktuak erostera. Lokal hori gure taldekide baten garajea izango da, baina bertan denda bat izateko modukoa ipiniko dugu, hau da, egokitu egingo dugu. Horrez gain, ordenagailuak ere beharko ditugu webgunean gure produktuen informazioa emateko eta baita bezeroek erosi ahal izateko eta berrikuntzak egingo ditugu behin eta berriro gure webgunean, perfektionatu egingo dugu, gozorian mantentzeko helburuarekin. Gainera, ordenagailua beste hainbat gauzarako erabiliko dugu: gure produktuen salmenta kontrolatzeko, etekinak ikusteko, bezeroen produktu gogokoena zein den antzemateko... Baita ere, telefono bat beharrezkoa izango da bezeroak gurekin harremana izateko eta beraiekin komunikatu ahal izateko eta ez bakarrik bezeroekin, gure garraio-enpresarekin ere komunikatzeko baliagarria izango zaigu. Bulego bat ere beharrezkoa izango dugu gure enpresari buruzko informazioa bertan biltzeko eta informazio hori ongi kudeatzeko. Ezinbestekoa izango dugu sistema informatiko bat gure webgunea aurrera eramanez ahal izateko. Baliabide hauek beste enpresa batzuei erositakoak izango dira noski, ez gara horiek ekoizten hasiko. Telefonoa eta ordenagailuaren kasuan, guregandik gertu dagoen supermerkatu batera joan eta han erosiko dugu, enpresaren diruarekin, noski. Bulegoarentzako beharrezkoak diren altzairuak ere bertan erosiko ditugu. Sistema informatikoari dagokionez, gure enpresako lankide baten lagun batek horretan lan egiten duenez, berari esango diogu lan honetaz arduratzeko.

Baliabide intelektualei dagokionez, berriz, ez dugu markarik edo patenterik edukiko, beste enpresa batzuei erositako produktuak salduko ditugulako. Produktu hauek saltzerakoan, gure produktua ez direla adieraziko dugu eta zein

enpresak egiten duen ere adieraziko dugu. Horrez gain, gure erabiltzaileen informazioa jasoko dugu eta honekin datu-base bat egingo dugu, baina ez dugu informazio hau inolaz ere zabalduko, pribatutasuna zainduko dugu.

Giza-baliabideei erreparatuz, sormena beharrezkoa izango da gure enpresaren publizitatea egiteko. Azken finean, publizitatearen bitartez bezeroak erakartzea lortuko dugu eta gure etekinak handitu egin daitezke horrela. Baita ere, sormena lagungarria izango zaigu gure produktuak gure lokalean kokatzerako garaian, hau da, bezeroei erakargarria egingo zaien moduan eta produktua ondo ikusteko moduan kokatzea beharrezkoa ikusten dugu. Gainera, ezagutza ere beharrezkoa izango da gure egileei behar bezala laguntzeko beraiek laguntza eskatzen duten momentuetan. Zehazki, enpresaren eta produktuen inguruan ezagutza edukitzea ezinbestekoa ikusten dugu, bezeroak normalean gai hauen inguruan galdetuko baitigu. Azkenik, gaitasun komertziala ere eduki behar dugu, hau da, enpresan gure obligazioak eta gure eginbeharrekoak egiteko gaitasuna eduki behar dugu, enpresa egoki mantentzeko gaitasuna... Lan horiek guztiak gure enpresako taldekideen artean banatuko ditugu, eta horrela taldekide bakoitzak berari dagozkion lanak kudeatuko ditu. Argi dago lan asko dagoela egiteko, baina taldekide askok osatzen dugunez enpresa, ez zaigu hain zaila egingo denon artean hori guztia egitea.

Azkenik, finantza-baliabideei erreparatuz, berriz, ezinbestekoa izango dugu dirua. Diru horrekin, enpresako kide guztiei dagozkien soldatak ordainduko dizkiegu eta behar bezalako baliabideak emango dizkiegu, lana behar bezala egiteko. Baina ez hori bakarrik, enpresan beharrezkoak diren aldaketa edo gauza guztiak aldatzeko eta hobetzeko ere erabiliko dugu dirua, hala nola, enpresako instalazioak hobetu, garraio bide egokiak erabili... Horrez gain, diru horrekin ere publizitatea egingo dugu gure enpresaren ideia positibo bat zabaltzeko. Beraz, dirua inbertituko, beti ere, enpresa hobetzeko helburuarekin.